

ZORIONTSUAK IZAN NAHI DUGU

1.- Deskribapena

Tristura eta poza haurren premien betetze-mailarekin erlazionatzean datza.

2.- Helburuak

- Giza Eskubideak taldekideen bizipen eta sentimenduekin nahiz beren premien betetze-mailarekin erlazionatzea.
- Gure errealitateko testuinguruak aztertzea.

3.- Partaideak

Gutxienez 10 pertsona.

Adina: 8 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Estraza-papera edo arbela, eta margotzeko eta marrazteko materiala.

5.- Abiapuntuko arauak

1. Talde handia
2. Talde txikia
3. Talde handia

6.- Garapena

Haurrek tristura eta poza eragiten dieten gauzak aipatuko dituzte. Arbela edo estraza-paperaren erdian lerro bertikal bat marraztuko dugu, eta alde banatan aurpegi alai bat eta aurpegi triste bat. Taldekideek beren azalpenak emango dituzte, eta sentimenduaren arabera, arbelaren alde batean edo bestean modu sinbolikoan marraztuko dituzte. Marrazki bakoitzaren ondoan sentimendu hori islatzen duen hitz bat idatziko dute (beharrezkoa bada, dinamizatzailleek lagundu egin diezaiekete).

Ondoren, haurrak bi taldetan banatuko dira; batek istorio triste bat asmatuko du eta besteak istorio alai bat, dagokion aldeko elementu guztiak erabiliz (tristeak edo alaiak).

Azkenik, bateratze-lana egingo da, eta talde bakoitzak asmatu duen istorioa kontatuko die gainerakoei.

7.- Ebaluazioa

Istorio alaiak eta tristeak asmatu ondoren, dinamizatzailleak galdera batzuk egingo dizkie hurrei, babestuak izateko eskubidea dutela eta zoriontsuak izateko beren premiak bete egin behar direla uler dezaten.

Zerk pozten zaituzte? Eta zerk atsekabetzen zaituzte? Zuen ingurune hurbilean ba al dago babesik ez duen edo bere premiak beteta ez dituen pertsonarik? Triste sentitzen al dira? Zergatik? Zer egin genezake egoera hori aldatzeko?

8.- Iturria

Haurren eta Nerabearen Eskubideen aldeko Programa Nazionala. *Por los derechos del niño y del adolescente*. Kultura eta Hezkuntzako Ministerio Nazionala. Argentinako Errepublika. Buenos Aires. 1996.